



**ARANTZako UDALA**

[www.arantza.eu](http://www.arantza.eu)

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)

☎ 948 634 005

☎ 948 634 192

[arantza.udala@terra.es](mailto:arantza.udala@terra.es)

## 2013KO APIRILAREN SEKO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.

**Batzarra:** Ohiko bilera.

**Deialdia:** Lehenengoa.

**Eguna:** 2013.04.05.

**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

### **Zinegotziak:**

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Ander Almandotz Indakoetxea jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Purificacion Leiza Petrirena andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Garapenerako Nafarroako Lankidetza Funtsan parte hartzeko eskaera.
- 4.-Herri Urrats: diru laguntza eskaera.
- 5.-Donapearen aldeko taldeak aurkeztutako manifestua.
- 6.-Toki Administrazioaren razionalizazio eta jasangarritasun lege aurre proiektuari buruzko proposamena.
- 7.-Etxe kaleratzeen egoera larriaren mozioa.
- 8.-Herriko piboteak.
- 9.-Guifineten afera.
- 10.-Eskolako obrak.
- 11.-Alkatearen ebazpenak.
- 12.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2013ko martxoaren 7an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, aldaketa honekin:

16. puntuan haxe falta da:

”Pellettikin emanen zaio lehentasuna umeek egindako inskripzioa kontuan hartuz”.

## **2.-PURIFICACION LEIZA PETRIRENA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Purificacion Leiza Petrirena andreak Aierdi alderdian 15 zuhaitzen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (haritz amerikanoen matarrasa): 6. poligonoko 354. lur zatian.

Kontuan hartuz lurra komunala dela.

Ikusirik Arantzako Udalak irazlaien hitzarmena sinatzeko onartutako oinarrien 9. artikulua eta horren arabera partikularrak egindako landaketa berak probetxuko duela baino Udalari Mendiko Zerbitzuak eginen duen balorazioaren %10a ordaintzeko baldintza pean.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Purificacion Leiza Petrirena andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea eta mendizainari probetxamenduaren balorazio egiteko eskatzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

## **3.-GARAPENERAKO NAFARROAKO LANKIDETZA FUNTSAN PARTE HARTZEKO ESKAERA.**

Ikusirik Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, urtero bezala, kudeatzen duen Lankidetzaren Funtsan parte hartzeko gonbidatuz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2013.urtean aipatutako Garapenerako Nafarroako Lankidetzaren Funtsan parte ez hartzea.

## **4.-HERRI URRATS: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Herri Urratsen Iparraldeko ikastolen festa antolatzeko aurkeztutako diru laguntza eskaera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Herri Urratsari 100,00 euroko diru laguntza ematea.

## **5.-DONAPEAREN ALDEKO TALDEAK AURKEZTUTAKO MANIFESTUA.**

Ikusirik Donapearen aldeko taldeak aurkeztutako manifestuaren edukia:

“Joan den urtean Nafarroako Gobernuak protokolo bat sinatu zuen Nafarroako Unibertsitatearekin eta Ikerketa Mediko Aplikaturako Fundazioarekin (FIMA) hiru ikerketa zentro eraikitzeko gaur egun Donapea IIP dagoen orubean; Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu zuen Institutu hau Etxabakoizko beste orube batera eramateko. Operazio honen aurrekontua 25.000.000 € baino gehiagokoa izan daiteke.

Gaur-gaurkoz, badakigu Donapea Nafarroako Unibertsitate Pribatuari saltzeko operazioak lekualdatzearen kostuaren zati txiki bat baino ez duela betetzen.

Manifestu hau idazten dugunak Donapea IIPk gaur egun dagoen tokian jarraitzearen alde gaude, eta ondorioz,

Adierazten dugu:

1. Proiektu honetan ez dela aintzat hartu Donapeko eskola komunitatea, eta Institutua ikastetxearen hezkuntza-interesetatik bestelako hirigintza-operazio baten ondoriozko presioaren pean jarri dela.





2. Gaur egun Donapea IIPk dituen ikasgela, lantegi eta laborategiekin aski ongi betetzen duela esleitua duen helburua: formazio akademiko eta osoa, kalitatezkoa eta publikoa eskaintzea, hain zuzen ere.

3. Bizi ditugun krisi ekonomiko orokorreko garaiotan, gure ustez batere beharrezkoa ez den proiektu honetara bideraturiko aurrekontua gizartearen osotasunak osasunaren, hezkuntzaren, gizarte ongizatearen edo mendekotasunaren arloan pairatzen dituen hurrenez hurreneko murrizketak arintzera bidera daitekeela.

4. Horren premiazkoa eta onurazkoa bada hiru ikerketa zentro eraikitzea –guk ez dugu zalantzan jartzen hala denik–, Unibertsitate Pribatuak hirigintzarako kalifikazioa duten 450.000 m<sup>2</sup> dituela jabetzan, eta horietan aski duela eskabidea egitea dagokion eraikitze-lizentzia eskuratu ahal izateko.

5. Gure ordezkari politikoen zuhurtziari eta ardurari dei egiten diegu plan hau ez dadin gauzatu, horrek diru publikoa inongo beharrizanik gabe xahutzea lekarkeelako.

Gure hausnarketarako gaitasuna sobera egiaztatuta dago eta herritar ororen interes kolektiboak Nafarroako Unibertsitate Pribatuaren interesen menpe, erakunde pribatua dena, ezin direla egon ondorioztatzen dugu. Horregatik guztiagatik, irmo jarraituko dugu esanez: utzi Donapea dagoen tokian!”

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako manifestua onartzea eta Pro-Donapea taldeari jakinaraztea.

## **6.-TOKI ADMINISTRAZIOAREN RAZIONALIZAZIO ETA JASANGARRITASUN LEGE AURRE PROIEKTUARI BURUZKO PROPOSAMENA.**

Pasa den otsailaren 15ean, Madrilgo Gobernuak, Toki Administrazioaren Razionalizazio eta Jasangarritasun Lege Aurre Proiektua aurkeztu zuen. Aurre proiektuaren irizpide nagusiak aztertu eta sakondu ondoren, eta bertatik Toki Entitateentzat eta orohar udal politikarentzat eratortzen diren ondorio larriak ikusita, honako ebazpen hau eztabaidatu eta onartzea erabaki da:

1)Udal honek, bere erabateko desadostasuna adierazten du, pasa den otsailaren 15eko Ministro Kontseiluak onartutako Toki Administrazioaren Razionalizazio eta Jasangarritasun Lege Aurre Proiektuaren aurrean, Toki Entitateen eta Udalen autonomiari eginiko eraso delako.

2)Ondorioz,Udal honek Gobernu espainiarrari lege aurre proiektu hau berehalakoan erretiratu dezala eskatzen dio.

3)Madrilgo Kongresuan Lege hau onartuko balitz, Udal honek, dagokion instituzioei, berau ez aplikatzeko eskaera egiten die.

4) Toki Entitateen eta Udalen inguruan irekita dagoen eztabaida honetan, udal, kontzeju eta mankomunitateen iritziak eta ekarpenak kontutan hartuak izan daitezzen eskatzen du Udal honek.

5)Era berean, Nafarroan zabalik dagoen tokiko entitateen maparen aldaketaren prozesuan kontzejuen, udalen eta mankomunitateen iritziak eta ekarpenak aintzat hartuak izan daitezela eskatzen du udal honek.

6)Akordio honen berri ohiko hedabideei igortzea.

7)Akordio honen berri Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Gobernuari jakinaraztea eta baita [tokikomapa@gmail.com](mailto:tokikomapa@gmail.com) helbideari ere.

## **7.-ETXE KALERATZEEN EGOERA LARRIAREN MOZIOA.**

Ikusirik etxe kaleratzeen egoera larriaren aurrean bidalitako mozioa.

Irakurri ondoren mozioaren edukia, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udal honek, etxe kaleratze denak denbora mugagabeen bertan behera uzteko esijitzen du. Herritarren eskubideen defentsa bermatzeko legediaren aldaketa esijitzen dugu. Era berean, herritarren etxebizitza eskubidea babesten du, gai honetan bankuek eta Espainiako gobernuak duten jarrera ozen salatuz.

2) Udal honek, ohiko etxebizitzaren jabetzaren baitan ematen diren etxe kaleratzeak ezezik, alokairua erregimenaren baitan ematen diren etxe kaleratzeak ere bertan behera uzteko esijitzen du. Banku, Kutxa eta kooperatiba guztiei, udalarekin duen harremanagatik, inongo kasutan ohiko eta lehen etxebizitza kaleratzerik gehiago ez egiteko esijitzen diogu.

3) Udal honek, etxe kaleratzeen gaiarekin duten jarreraren arabera kreditu entitateekin duen harreman instituzionala, ekonomikoa eta elkarlana berrikusi egingo ditu.

4) Udal honek, herritarren jakinaren gainean utziko du etxe kaleratzeen gaiaren aurrean banku, kutxa edo Kooperatiba bakoitzak duen jarrera. Herritarrei informazio zehatza emateko konpromisoa hartzen du.

5) Udal honek, ohiko etxebizitzaren etxe kaleratzea nozitu duen herritarrei zein egoera horren arriskuan daudenei informazioa eta laguntza emateko baliabideak jarriko ditu; etxe kaleratzea ekiditeko helburuarekin, dagokion entitate finantzieroarekin harremanetan jarriaz. Kaltetuen eskura, telefono zenbaki bat eta Email bat jarriko dira.

6) Udal honek, eta bertako udal langileek ez dute etxe kaleratze prozedurarik bultzatuko eta beraietan parte hartuko.

7) Udal honek, etxe kaleratzeen aurka lanean ari diren gizarte eragileekin elkarlanerako duen prestutasuna adierazten du. Egoera elkarrekin aztertu eta dagokigun eremuetan urrats sendoak emateko konpromisoa hartzen dugu.

8) Udal honek, subirauntza politikoa esijitzen du, gure etxebizitza politika egin ahal izateko eta Madriletik inposatzen zaizkigun neurri neoliberal basati nozitu beharrik ez izateko.

## **8.-HERRIKO PIBOTEAK.**

Kontuan hartuz plazan eta karriketari falta diren edo hondatutako ontziak eta piboteak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Plazan jartzeko 3 loreontzi metalikoak erostea eta 4 piboteak karriketari jarriak dauden bezalakoak.

## **9.-GUIFINETEN AFERA.**

Ikusirik guifi jartzeko aurkeztutako aurrekontua Gipuzkoashare elkarteak eginga.

Kontuan hartuz Arantzako Udalari 6.500,00 euroko gastoa suposatuko diola.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako aurrekontua onartzea.

## **10.-ESKOLAKO OBRAK.**

Aztertu ondoren eskolako zuzendariarekin eta guraso elkarteko lehendakariarekin eskolako obren beharra eta zehaztua ondoren obren ezaugarriak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuarekin bilera egiteko eskatzea gaia aztertu eta lotzeko.





**ARANTZako UDALA**

[www.arantza.eu](http://www.arantza.eu)

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
[arantza.udala@terra.es](mailto:arantza.udala@terra.es)

### **11.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2013ko 12tik 16 arte).

### **12.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 20:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Jaime Iturria Mitxelena jn.



